



ELEKTRARIDE

KANALAK

Gure proiektua aurrera eramateko eta bezeroetara iritsiarazteko, ezinbestekoa da gure kanalak zeintzuk eta nolakoak izango diren erabakitzea. Gure zerbitzua pertsona gehiagotara iristeko kanal desberdinak erabiliko ditugu, haien arteko oreka mantentzea ezinbestekoa baita guretzat, izan ere, kanal mota bakoitzak haren alde on eta txarrak ditu. Zuzeneko kanalei dagokionez, alde positiboa erraztasuna da. Gainera, baliabideak nahiko merkeak dira. Zeharkako kanalei dagokionez, laguntza pertsonalizatua jasotzea eta gertutasuna transmititzea da bezeroentzat alde positiboa. Alde negatiboa berriz, enpresarentzat baliabide hauek nahiko garestiak izan daitezkeela da.

Hasteko, zuzeneko kanal bat erabiliko dugu, honetarako aplikazio bat sortuko dugu. Bertan gure informazioa bilduko dugu: mapa, patineteak kargatzen uzteko guneak, ordainketak, saldua... Honek gure bezeroen erabilera errazagoa izatea lagunduko du, dena eskuragarri izanda.

Aipagarria da bezeroek gure produktua ikusi eta erabili artean bost faseko prozesu konplexu bat biziko dutela. Pertzepzioa izango da lehen fasea; hau publizitatearen bidez egingo dugu eta honetan gure zerbitzuko oinarriak eta bezeroek bertan aurkitu dezaketena transmititu nahi dugu. Publizitate honen bidez, bezeroek gure zerbitzua transporte seguru, dibertigarri eta ekonomikoki eskuragarri gisa ikusiko dute. Honek, gure enpresa haztea ahalbidetuko du, herritik ibiltzeko eta abenturak bizitzeko prest egongo diren bezeroak erakarriz.

Bigarren fasea ebaluazioa izango da. Gure nahia bezeroek patineteekiko ebaluazio positiboa egitea da. Honetarako, aplikazioan gure patinetei buruzko informazioa eskainiko dugu, ezinbestekoa delako ebaluazioa informazio guztia jakinda egitea.

Hirugarren fasea erosketak izango da, eta bezeroek hau gure zuzeneko kanala erabiliz egin dezakete. Prozesua erraza izango da, soilik zenbateko erabilera egin nahi duten erara aukeratu beharko dute, hasierako ordainketa eta patineteen erabileraren ingurukoa.

Laugarren fasea nahiko berezia izango da gure kasuan, izan ere, gure entrega ez da produktu bat izango, zerbitzu bat baizik. Esperientzia honen bitartez era merkean garraio berri bat ezagutzea ahalbidetuko diegu bezeroei.



ELEKTRARIDE

Azken faseari dagokionez, salmenta ondorengo fasea alegia, webgunearen eta aplikazioaren bidez bezeroek gure zerbitzuari kritika bat egitea nahiko genuke, honela ikasteko eta hobetzeko aukera izango baitugu. Bestalde, haien iritzia guretzat garrantzitsua dela transmitituko diegu, berriro ere, gertutasuna adieraziz. Kritika hori gure aplikazioan egiteko aukera izango dute.

Laburbilduz, kanal zuzenak erabiliko dugu, hau da, guk kalean edo spot-etan utzitako zerbitzua jendearengatik erabilia izango da. Gainera, gure bezeroek informazioa eskuratzeko eta ordainketa egiteko erraztasuna edukiko dute, era berean, guk haien iritzia jakiteko aukera edukiko dugu gure aplikazioan.